19.zk
2005

Editor

Nafarroako Eskola Kontseilua
Aldizkari Berri-Emailea

MONOGRAFIKOA: IRAKURKETA ETA IDAZKETA.

IRAKURKETA ETA IDAZKETA: OINARRIZKO TRESNAK

Pedro Jimeno



Pedro Jimeno

Oso gaizki idazten dela, oso gaizki irakurtzen dela eta irakurritakoa ere gutxi ulertzen dela dioten adierazpen alarmistak aditzea ohikoa da. Eta adierazpen horiek maila guztietako hezkuntzako profesionalen artean eta profesionalak ez direnen artean ere entzuten ahal dira. "Iragandako edozein garai hobea izan zela" dioen topiko zaharrak, hainbat modutan adierazita eta estilo ezberdinetako nostalgiako elementu eta bestelako adierazpenekin batera, betiko bizitasun berbera du eta, beti bezala, egiarekin antza txikia du.

Gaur egungo herritarrek, oro har, orain del a40 urtetakoek baino gehiago irakurtzen dute, hobeki irakurtzen dute, gehiago eta hobeki idazten dute. Eta gauza bera esan behar dugu Lehen eta Bigarren Mailako egungo ikasleak hirurogei urtetakoekin alderatzen baldin baditugu. Eskolatuta lagun kopuruari eta eskolaratze-denborari, liburu zein egunkarien irakurketa indizeei bakarrik begiratzen badiegu, ondorio biribilak aterako ditugu. Zer dela eta orduan alarma hori? Justifikatuta al dago? Datuei begiratuta ezetz esan ahalko bagenu ere, errealitatea ez da nahi bezalakoa: hamasei urteko espainiar hiritar baten ulermena eta adierazteko ahalmena, eta baita irakurtzeko duen ohitura ere, argi eta garbi hobetu daitezke eta, jakina, eskola-erakundeak hamabi edo hamahiru urtez berarekin burutu duen ahaleginarekin ez dator bat. Hori horrelakoa bada, egoera arretaz, presarik gabe, sakon aztertzea ezinbestekoa da. komunikazio-ahalmen eta irakurketaren zaletasunaren garapen handiagoa edo txikiagoa eragiten duten elementu guztiak aztertu behar ditugu. Neurri handi batean bion menpe dago maila guztietako ikasle guztien eskola-arrakasta, eta pentsatzen dutena esaten dakiten eta jasotzen dituzten mezuekin kritiko jokatzen duten hiritarrak edukitzearen gizarte-arrakasta ere.

Ikasle batek irakurketa eta idazketarekiko duen ahalmena eta jarrera hainbat faktoreren menpe egoten dira: alde batetik, aplikatzen zaizkion eskola-programak, metodologia eta material didaktikoak, biak ala biak didaktika berezien garapenarekin estu-estu lotuta, baita irakasleen gaitasun eta dedikazioarekin ere. Baina, bestaldetik, eskola-esparrutik kanpoko faktoreak ere erabakigarriak dira. Familiaz eta bertan komunikazio idatziari ematen zaion garrantziaz, eta telebistako programen, publizitatearen, bideojokoen, eta abarren mundu konplexu horrek duen eraginaz ere ari gara.

Gordon Wells jaunak eta bere lantaldeak "Bristol Azterlanean" buruturiko ikerketak bezalakoek familia-esparruko komunikazio-elkarrekintza arina, umeei oso txikitatik ipuinak irakurtzea idazmena eta irakurmenerako gurasoen maila soziokulturala bera baino askozaz garrantzitsuagoa dela erakusten dute. Bestaldetik, eta ikus-entzunezko eraginaren ondorioz, irakasleen eginkizuna zailago bilakatu da: gaur egun, ikasleek ikasgeletan duten jarrera orain dela hogeita bost urtekoek zutenaren bestelakoa da: ipurtarinagoak dira, zailago gertatzen zaie kontzentratuta egotea, atseden, hausnarketa, azterketa eskatzen dituzten zereginak burutzeko zailtasun handiagoak izaten dituzte. Eta ez zitekeen bestelakorik gertatu gurea bezalako gizarte batean, Joan Ferrés jaunak "ikuskizunaren gizartea" esaten dio, eta bere ezaugarri nagusiak honako hauek dira: "sentimenak, narratiboa, dinamikoa, emozioak eta sentsazioak sustatzea". Mundu horrekin lehian sartzea, benetan, zaila da.

Hobekuntza esanguratsuak erdiestea, beraz, aldagai horiek guztiak sakon aztertzearen eta ondoren erabaki burutsu eta, ziur aski, ausartak hartzearen emaitza izango da. Erabaki horiek kurrikuluari, material didaktikoei (orain arte editorialen irizpideaz gehiegi fidatu izan gara), irakasleen prestakuntzari, hau didaktikaren ekarpenekin lotuta (momentu honetan anitz eta oso solidoak); bere lan-baldintzei eta arlo guztietako irakasleak irakurketa eta idazketari dagokienez izan beharreko koordinazioari buruzkoak dira. Aurrerantzean lan handia dago, baina baikor izateko baldintza objektibo nahikoak daude. Baina gure klase politikoak izan ohi dituen presak saihestu behar ditugu, azken hori, agian, hezkuntza sistemak eskaintzen duenaren benetako kalitatearekin baino ebaluazioarekin baitago obsesionatuta.

ditor

IRAKURKETA ETA IDAZKETA HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAN.

Lekarozko I.L.I.ko ekipo pedagogikoa.

Umeak hizkuntza idatzia nola eskuratzen duen.

Gure gizarte alfabetatuan, umeak irakurketa eta idazketarekin harremana izaten du eskolara joan aurretik. Inguratzen duen gizartea mezu idatziez beteta dago eta, horiek interpretatzeko behar horretan, hizkuntza idatzia eskuratzeko prozesuan eragingo duten ideiak garatzen ditu. Hori dela eta, helduaren zeregina ideia horien inguruan aztertzea da, horietan oinarriturik, alfabetatzeko bere prozesuan aurrera egin dezan laguntzearren.

Eta zer da irakurtzea?
"Irakurtzea irakurle eta testuaren arteko interakzioko prozesua da, eta prozesu horren bitartez aurrenekoa bere irakurketa zuzentzen dituzten helburuak betetzen saiatzen da" **(I. Solé)**.

Irakurtzea ulertzea da, eta ez letrak, silabak, hitzak eta zenbakiak deskodetzea bakarrik. Umeek iragarpenak egiten dituzte eta, irakurri ahala, egiaztatu egiten dituzte: kodea ezagutzea beharrezko tresna da, baina ez da nahikoa, ulertu ahal izateko.

Zer da idaztea?
Hizkuntza idatzia, "idazketan" fisikoki gauzatzen duguna, hizkuntzako nolabaiteko formaren irudipen mentala da, eta ez ahozkoaren transkribatze hutsa.

Benetan irudikatu nahi denaren eta erabiltzen ditugun elementuen (letrak) artean ezartzen den bat etortzea guztiz arbitrarioa da eta, ondorioz, horren azalpena beharbeharrezkoa da ulertua izateko. Ezinbestekoa den azalpen honek irakurketa eta idazketaren irakaskuntza-ikaskuntzaren prozesua osatzen du.

Prozesu horri oso goiz ekiten zaio eta ez da inoiz bukatzen, izan ere, irakurtzen eta idazten jarraitzen badugu, beti izango gara hobeki egiteko gauza. Kodea ezagutu gabe ere, umeek irakurri eta idazten dute. Ekoizpen hauek ez dira guretzat berez esanguratsuak haurren azalpenik gabe, era berean, gureak ere ez dira beraientzat esanguratsuak dagokien azalpena eduki gabe.

Idazteko prozesuaren progresioa honako hau izango litzateke:

• **Idazkera aurresilabikoak:** umeek ikasten dute idaztea eta marraztea bi ekintza bereizi direla. Idazteko, gutxi gorabehera, letren antzeko diren zirriborroak erabiltzen dituzte; pixkanaka letrak erabiltzen dituzte, hasieran inolako kontrolik gabe, eta emeki-emeki konbentzionalitatera hurbiltzen dira.

• **Idazkera silabikoak:** umeak aditzen duen soinuko gutxieneko unitatea silaba dela kontuan hartuta, hasieran jasotzen dituen silabak bezainbesteko letra erabiltzen ditu. Ondoren, soinu-balio konbentzionala deskubritzen du, bokalak agertzean, lehenik, eta, ondoren, kontsonanteak deskubritzean, hauek izen berezien edo berarentzat esanguratsuak diren bestelako hitzen hasierarekin lotzen ditu batik bat.



Lekarozko I.L.I.ko ekipo pedagogikoa.

• **Idazkera alfabetikoak:** kodea modu konbentzionalean erabiltzen dute, baina oraindik prozesu luzea geratzen da, eta honetan zehar gramatikazko arau guztiak eskuratuko dituzte (hitzen banaketa, letra larrien, puntu eta komen erabilera, esaldiak bereiztea, ...)

Irakurketari dagokionez, umeek ere bere ideiak dituzte eta, inork esan ez badie ere, irakurtzeko letrak behar direla, bizpahiru gutxienez, eta, gainera, elkarren artean ezberdinak izan behar direla, jakin badakite. Oraindik ez dute kodea ezagutzen baina irakurtzen has daitezke; deskodetzearen aurreko irakurketa da eta, ondorioz, umeak deskodetu behar duen testuak zenbait laguntza izango ditu: irudia agertzea, testuinguru ezagun eta zehatzak, aldez aurretik memorizatutako testuetan hitzak ezagutzea, e.a.

Hazten diren eta ikaskuntzan aurrera egiten duten neurrian, testuari buruzko bere ideiak garatzen dituzte. Ipuinek hasiera eta bukaera zehatza dutela, ipuina eskutitz edo errezetaren bestelakoa dela, idazkera lerrokadetan banatzen dela, albisteek galderei erantzuten dietela,... deskubritzen dute.

Ikaskuntzako prozesu honek irakurle eta testuaren arteko interakzioa dakarrela kontuan harturik: Zein da helduak bertan duen eginkizuna?

oroa

Maisuaren eginkizuna umeek ikas dezaten egoerarik hoberenak sortzea da, eta egoera hauetan erabilera sozialeko testua ardatz antolatzailea izango da. Eta jarduerak kodea menperatzera bideratuta egoteaz gain, ulermena errazten duten era guztietako estrategiak bereganatzera ere egongo dira (iragarpenak, inferentziak, irakurketaren helburuak,...).

Prozesu hau eskolan lantzen da, baina arras garrantzitsua da Gurasoek bere seme-alabekin garatzen ahal duten eginkizuna.

Honako hauek izango lirateke balizko jarduerak:
• Irakurketa partekatuko egoerak bilatzea (iragarkiak, errezetak, egunkaria, oharrak, ipuinak, ...).
• Irakurketaz seme-alabekin gozatzea.
• Beraiekin batera irakurtzea eta hainbat testurekin treba daitezen laguntzea.
• Seme-alabei irakurtzen dutena ulertzen laguntzea.
• Irakurtzeko ohiturak sortzea.
• Eskolako lanen irakurketa beraiekin batera egitea.
• Liburuak ohizko bihurtzea eta gozamenerako iturritzat hartzea.

Gurasoen eginkizuna garrantzi handikoa bada ere, egoera batzuetan hauek duten denbora librea ez da nahi bezain handia. Kasu hauetan, eskola izango da ezberdintasun hauek orekatzen dituen elementua.

Sendiak eta eskolak indarrak batuko dituzte ikasleen irakurtzeko gaitasuna garatu eta sendotzeko asmoz, horrela, eskola eta lan munduari arrakastaz aurre egiteko gauza izango dira, eta irakurtzeko plazeraz gozatu ahal izanen dute.

IDAZKETA BIGARREN HEZKUNTZAN: ZEREGIN HANDIAK EGITEKE

Pedro Jimeno

Testua idatzi nahi duen pertsona oro, formazko egoera txikienean ere, zeregin hori modu onargarrian egiteak dituen zailtasunen jakitun da. Baita goi mailagoko hezkuntza duten, nolabaiteko maiztasunaz idazten duten eta irakurtzeko ohitura duten pertsonentzat ere, idaztea zerbait zaila da. Horren azalpena, batik bat, duen zailtasun handia da. Testu idatzia egin nahi duenak fronte anitzetan elkarrekin lotuta dauden erabakiak hartzeko prozesuari ekiten dio, eta prozesu horrek amaierako produktu egokian izan behar du bukaera.

Horrela, testuaren idazketari ekin baino lehen, idazleak, besteak beste, honako elementu hauek oso argi eduki behar ditu: garatu behar duen edukia eta bere egituratzea, igorle gisa hartzen duen eginkizuna (bere izenean edo talde baten ordezkaritzan, hiritar soil gisa, zergadun gisa, etxe bateko bizilagun gisa... idazten du), eragiten duen komunikazio-asmoa (eskatzea, salatzea, azaltzea, kritikatzea, konbentzitzea, zirikatzea...), mezuaren jasotzailea (bat edo batzuk, ezagun edo ezezaguna,...), komunikazio hori txertatzen den esparru edo eremua (prentsa, lan mundua, Administrazio Publikoaren esparrua, familia...). Horrek guztiak testu motarik zuzenena, egokiena, hautatzera eramanen du indarrean dauden soziokomunikazioko konbentzioekin bat etorriz. Baina oraindik ez da idazten hasi. Egiten duenean erabakiak hartzen jarraitu beharko du, lexiko, ortografia, puntuazio, tratamenduko formula, hitzen hurrenkera, esaldien luzapen, gramatikazko arauei buruzkoak, hala perpaus motari nola perpausaren eremutik haratago doazenei dagokienez; formaltasun maila handiagoa edo txikiagoa, adibideak erabiltzea ala ez.... kontrolatu beharko du.

Zalantzarik gabe, anitz dira testu idatzi baten ekoizpenean esku hartzen duten osagaiak, eta horietakoren bati behar bezalako arreta ez emateak hasierako proiektu ona porrotera eramaten ahal du. Horregatik, eskolako erakundeak ahalegin handia egin behar du idazketaren irakaskuntzan. Hori dela eta, idazketa, irakurketarekin batera, Hizkuntza eta Literatura arloaren protagonista nagusia izan behar da, baita Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ere.

Eta, hala eta guztiz ere, oraindik gauza anitz daude egiteke. Egun, orain dela hogeita hamar urte baino anitzez gehiago dakigu idazketaren irakaskuntzari buruz. Mundu osoan (Erresuma Batua, Australia, Suitza, Frantzia, Italia, Espainia, Estatu Batuak...) egindako ikerketa guztiak ongi idazteaz ulertzen denaz eta idazketaren irakaskuntzari nola heldu behar dioten funtsean bat datozela baiezta daiteke. Aditu entzutetsuenak hizkuntzako edukien, arauen ikasketa teorikoak, idatzi eta ulertzeko gaitasuna garatzeko, eraginkortasun ezdeusa duela azpimarratzerakoan bat datoz. Halaber, idazketaren irakaskuntza eduki zehatz gisa planteatu beharra dagoela eta ikasleek ikasgelan anitz idatzi behar dutela pentsatzerakoan ere bat datoz, izan ere, ekoizteko prozesua baita, hain zuzen ere, irakaslearen esku-hartzea benetan eraginkorra denean.

Hala eta guztiz ere, indarrean dagoen Gaztelania eta Literaturaren kurrikuluan hizkuntzako eduki teorikoak



Ikasleak liburutegian.

nabarmen nagusitzen dira. Egia da helburuak formula-tzerakoan lau trebetasunei, prozedurei dagozkiela eta hiru, berriz, kontzeptuei. Baina egia ere bada, eta tamalez, edukiak garatzerakoan kontzeptuala, teorikoa nabarmen gailentzen da. Saileko lankide batek orain dela gutxi honakoa adierazten zidan: "Ez dut idazten irakasteko astirik, hainbeste gauza ditut irakasteko". Kurrikuluaren edukiak, aginduen arabera, bortz ataletan egituratuta daude: "Komunikazioa" (komunikatzeko elementuak, testuko tipologiak...), "Hizkuntza eta gizartea", "Hizkuntzaren ikasketa", "Lanerako teknikak" eta "Literatura". Zergatik ez dago "Testuen idazketa" bakarrik dioen atalik? Zergatik ez dugu ausarki aurrera egiten Hizkuntza eta Literaturako eskolak irakurketa eta testuak ekoizteko benetako tailer gisako ikusmolderantz?

Koherente izan nahi badugu, horixe da bidea. Erretorika soberan dago ("eskola aktibo eta parte hartzaileak", "sormena garatzea", "ikasleen interesei arreta jar-tzea"...) eta neurri ausartak falta dira. Eta abiapuntua, ezinbestez, egungo kurrikuluaren edukien sakoneko azterketa izan behar da. Azterketa hori, bestaldetik, derrigorrezko hezkuntzaren eta Hizkuntza eta Literatura arloaren helburu nagusiei jarraiki zuzendu behar da, eta ez unibertsitate munduko "izen handiko pertsonek" adierazitakoaren arabera, azken hauek arras gutxi baitakite derrigorrezko hezkuntzaren errealitateaz. Komunika-zioko gaitasuna ahalik eta gehien garatuta duten ikas-leak benetan nahi baditugu, zer dela eta "funtzio konatiboa", "osagarri predikatiboa", "lexemak" eta "hitz parasintetikoak" irakasten ditugu? Etorkizuneko filologoak prestatzen ari gara ala? Aurrean oraindik bide luzea dugu.

MÓNICARI EGINDAKO ESKUTITZA LITERATUR DIDAKTIKARI BURUZ

Mónica maitea:

Tomás Yerro Villanueva

Orain dela sei urte baino gehiago zure berri galdu ondoren zure eskutitza jaso izanak izugarri poztu nau. Literatura espainiar eta unibertsaleko eskolak eman nizkizun, gogoan al duzu? unibertsitatean sartu aurreko bezperetan. Egun gutxi batzuen buruan ikasgai horrekin institutuko irakasle kontratatu gisa estreinatu behar zarenean Literatura irakastera zuzendutako jarraibide didaktikoak eskatzeko nitaz oroitu izanak pozten nau. Oroz gainetik, zorionak eman nahi dizkizut Filologia Hispanikoa karrera bukatu eta berehala lana topatu duzulako. Zure eskaera, arras zintzoa, inuzente bezain handinahia da. Nahiko nuke nik zure ikasleen artean irakurketarako zaletasuna sustatzeko formula magikoa eman ahal izatea. Formula, egotekotan, ez dut ezagutzen nahiz eta ia nire bizitza osoan helduei, unibertsitarioei eta nerabeei gai hori irakasten eman dudan. Irakaskuntzako nire eskarmentuaren, beste lankide batzuekin egunero harremanetan egotearen eta, azterketa eta gogoeta pertsonalen ondorioz ateratako hainbat hausnarketa baino ez dizkizut helarazi behar.

Kurrikulu ofizialen eta zure saileko programazioaren kontsulta zure estreinaldi profesionalaren sarrera bihurtzea egokia izango litzateke. Administrazioko prosa latzean irakurriko duzu DBHko oinarrizko helburuetako bat ikasleek "arloko ikaskuntzan erabilitako testuen ulermenezko irakurketa" egiteko trebetasunak eskuratzea dela. Batxilergoari dagokionez, araudia aldi, egile eta obra gailenei buruzko espainiar literaturaren ezagutzei dagokie. Teorian ez dago hain gaizki, ezta? Hala ere, beste helburu honek gehiago erakartzen nau: "Literatur obra adierazgarriak irakurri eta baloratzea, bere irakurketa nork bere burua aberasteko modutzat gaineratuta".

Enuntziatu horiek ederrak direla ez didazu ukatuko. Ikasgelen errealitatea, hala ere, hain erosoak ez diren bestelako bide batzuetatik joan ohi da. Zuk zeuk aurki deskubrituko duzu eta, bestela, zure lankideak erakusteaz arduratuko dira. Eskolan buru-belarri sar zaitezen, irakasle eskuzabalen batek ikusi bezain laster ikasleek oso gutxi lan egiten dutela, oso gutxi dakitela, oso gutxi eta gaizki irakurtzen dutela, oso gaizki idazten dutela, oso gutxi... adieraziz agurtuko zaitu. Beteranoek zorabiatuko zaituzte behin eta berriz errepikatuz ikasleek ez dutela kolpe zorririk jotzen baina, salbuespenak salbuespen, arras maitekorrak eta atseginak direla tratu pertsonalean. Gutxi hobe deus ez baino. Ez da esan gabe geratuko familien jokabidea zein den, bere seme-alaben ikaskuntza prozesuan ez baitaude behar bezala inplikatuta, nonbait. Hezkuntzako Administrazioak, nola ez, aurkezpeneko berriketa hauetan ere ostikada zenbait jasotzen ohi ditu: ikasketa-plan aldakorrak, eduki gehiegi, ratio altuegiak, irakaslearen zeregin burokratikoak handitzea eta antzeko bestelako gehiegikeriak. Komunikabideek duten eragin kaltegarriak (telezaborra tiro guztien jomuga bilakatzen da), bideo-kontsolek eta ordenagailuko jokoek irakasleen bidegabekerien memorial mardularen beste atal bat osatzen dute. Ur-jausi jeremiako honen ostean, honetan autokritika beti kanpoan egoten dela, agian zure pupilo gazteen aurrean debuta egin aurretik etsitzeko tentaldia izan dezakezu. Nire gomendioa, arras sotila da: ahots guztiak arretaz entzuten saia zaitez, baina pentsa ezazu ikuspegi etsigarri hori bestelako irakasle ospetsu batzuek ere azaldu zutela orain dela berrogei urte baino gehiago, garai hartan, miopia handiz orain ziurtatzen duten bezala, eskolako sistema paradisuaren sinonimo zelarik. Bere aldeko desberdintasun nabarmena zegoela: diagnostikoa, batere atsegina, zorrotzagoa zen eta, datu erabakigarria, literaturari datxezkion arazo didaktikoak, ahal den neurrian, konpontzen saiatzen zen, eta ez kexa azaltzea bakarrik. Alfredo Carballo Picazo, Fernando Lázaro Carreter, Vicente Tusón, Andrés Amorós eta Francisco Rico jaunen lan pedagogikoak, aitzindari garrantzitsuenak bakarrik aipatzearren, oraindik ere indarrean daude. Nik bederen, hala sentitzen dut.

oroa

Irakasle askok, eta ez literaturakoek soilik, ahaztu omen dute egungo gizartea pertsonen gogoetan su eta gar idatzitako pauta batzuen arabera zuzentzen dela eta, ondorioz, pauta horiek neurri handi batean irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuak erabakitzen dituztela. Borondatea eta betebeharra gainbehera doaz, balore hauen ordez, geroz eta gehiago, pragmatismo amorratua, kontsumismoa, hedonismoa, eta motibazio hutsa portaerako printzipio gisa ("nahi dut") agertzen ari dira. Hertsatzailea baino haizukorragoa den gizarte batean ideal orokorra helburuak hemen eta orain lortzea da, ahaleginak egin gabe eta errazki. Eta ez dizut ez dakizun deus kontatu behar bizi garen ikuskizunaren gizarteari buruz, gizarte honen herri kulturak, funtsean ikus-entzunezkoarekin eta ez liburuekin lotuta dagoenak, sentsazioak eta emozioak, dinamismoa eta narratiboa laguntzen baititu. Premisa hauek guztiak, soziologoek esango luketen hezkuntzaren testuingurua, kontuan hartu ezean, zure irakasle-lana aldez aurretik porrotera kondenatuta egongo da.

Aurretik adierazitako kontu horien eta ikasgaietan, baita literaturan ere, duten eraginaren gainean taldean hausnartzeak testuliburua aukeratzerakoan edo unitate didaktiko zehatz bati aplikagarri zaizkion jardueretan ados jartzeak baino abantaila gehiago ekar litzake. Nire iri-tziz, fidagarrienak diren hezkuntzako prozesuetan lehendabizi pedagogia dago eta, horren ondoren, didaktika; gauza bera dena, zerbait zehatza irakatsi baino lehen ikasleen egoerak eta ezaugarriak ikasi behar dira. Kontuan izan behar duzu oroz gainetik irakaslea zarela eta, bigarren planoan, espainiar literaturako irakaslea, hau da, balore etiko eta moralen hezitzailea, trebetasun eta ezagutza zehatzen igorlea izateaz gain.

Zure nahiei nolabaiteko zehaztasunez erantzuten diedala, dejà vu itxura hartuko diezun pauta batzuk azaldu behar dizkizut:

- Zure ikasleek obra literarioen irakurketaz goza dezaten, ezinbesteko gertatzen da zu ere irakurle jaso, sutsu eta grinatsua izan zaitezen.

- Lázaro Carreter jaunak 1973. urtean honakoa idatzi zuen: "Irakasle baten maisutasuna bere ikasleekin batera komentatu behar dituen testuen hautapenean agertzen da: denek ez dute balio eta dena ez dira egokiak edozein momenturako". Ez duzu zalantzarik izan behar programazio ofizialaz kanpoko obra osoak eta testu laburrak –poemak eta kontaketak- hautatzerakoan; kasurik okerrenean gaur egungo testuen bidez, hizkuntza, kultura emozioen ikuspegitik ikasleengandik gertuago daudenen bidez, osa itzazu. Ikasgelan irakurritako testuek duten onarpen edo gaitzespen maila ongi begiratu: denbora iragan ostean gazteen gustu literarioen kanon sendoa egin ahal izanen duzu, hori Harold Bloom jaunak mundu osoan zabaldu zuena baino anitzez adierazgarriago eta praktikoago izanen da.

- Zure azalpen teorikoak argiak eta laburrak izan daitezen saiatu behar duzu, betiere testuetara hobeki hurbil-tzen laguntzera zuzenduta. Zure ikasle gehienek ez dute inoiz filologia egin behar. Juan Benet nobelagileak, 1974. urtean, honako gomendio hau ematen zigun: "(...) ahalik eta gutxien azaltzen saiatzea [literatura]. Non dagoen erakustea ikasleak berarekin nahi duena egin dezan". Zenbatetan ahazten dugu!. Testuetatik abiatzeko metodo induktiboa aplikatzea sarritan gomendagarria izaten da; etengabeko azalpen teorikoek, historizismoz batik bat inpregnatuta, memorismoa laguntzen dute. Programaren edukien irakaspena moteltzen da, eta bere inausketa ere eragiten du, baina espedientea betetzeak baino gehiago merezi du ikaskuntza esanguratsuak.

- Zure ikasleen adimen-gaitasun eta sentsibilitate estetikoa hasiera batean pentsatzen duzuna baino anitzez handiagoa dela pentsatzea noizbait bururatu al zaizu? Eskola, zuk diziplina goxoaz zuzenduta, bizi eta partehartzaile bilakatzen bada, esandakoaren aberastasuna egiaztatuko duzu eztabaidan eta testuen azterketan.

- Irakurketa eta idazketa, begien bistakoa da esatea, adimen-eragiketa oso zailak eta elkarren osagarriak dira. Testu-iruzkinak, libre edo jarraibideak emanda, idazteak obra literarioa uler dezaten errazten, behaketaren zentzumena zorrozten eta burua diziplinatzen lagun dezake. Bestaldetik, aztertutako testuen berridazketa sor-tzaileak, betiere irizpide argiekin eta mailakako eskakizunarekin lotuta, afektuzko inplikazioa, literatur idazketaren oinarrietan hastea eta ikasleen gozamena bermatu ohi ditu. Zure ikasleen sorkuntzak jendaurrean ere irakur ditzakete eta denon artean eztabaida ditzakete. Eskolako aldizkarietan edo koaderno sotiletan (informatikak mirariak egiten ditu) argitaratzeak bere egileen autoestimua handitzen du, eta hauek, oro har, nerabe oso ez-seguruak izaten dira.

- Obra literarioa azken emaitza da, idazlearen ahozko hizkuntzaren, biografiaren eta idazlearen estetikaren bidez, orain edo iraganeko gizarte-errealitatearen gainean proiektatutako bere begirada argiaren bidez eta, jakina, bere kultura aberatsaren bidez zabalduta. Behin eta berriz egiaztatu ahal izango duzu literaturako orrialderik ederrenetan –dotrinatzea ez dutela inoiz onartzen- historia, erlijio, filosofia, musika, arte, zine, telebista, publizitate, Internet, literatura bera eta abarretatik datozen jakintzak ikus daitezkeela. Hori dela eta, tradizio historikoa eta egun modan dagoen ikus-entzunezko kultura zure aliatu naturaltzat hartu behar dituzu, sekula ez aurkako edo lehiakidetzat.

Mónica, gezurra esango nizuke esango banizu kontsiderazio apal hauek arrakastaren bidea zabaldu behar dizutenik. Nahiko nuke nik hala izatea. Nolanahi ere, gaur egungo kontsumoko gizartean benetako literatura, ez best-seller rak, batere masifikatuta ez dauden batzarretan gordetzen da. Ikasle gazteek bestelako portaera izan behar dute ala? Zure lanaz gozatzearekin konformatu behar zara eta gainerakoa, baldin badator, erantsita etorriko da. Hainbat idazlan bikain, eskolan emandako adierazpen zolia, nolabaiteko begirada argi eta harridurazko aurpegiak ipuin edo olerki bat irakurtzerakoan eta honez-

oroa

kero bere izenak gogoan ez dituzun aspaldiko ikasleek kalean egindako agurra, horixe da zure ahaleginen sari posiblea. Gainerakoa isiltasuna da.

Zure esanetara naukazu. Zure lankide eta irakasle ohiaren agur adeitsua jaso ezazu.

Tomás Yerro Villanueva
"Plaza de la Cruz" B.H.I. - Iruñea

"IRUDIAK IRAKURTZEA, HITZAK MARRAZTEA".

Daniel Aldaya, idazlea



Daniel Aldaya

Borgesi honako hau galdetu zioten: Zertarako balio du poesiak? Eta berak hauxe erantzun zuen: "Eta zertarako balio dute egunsentiek?". Era berean, geure buruari ere honakoa galdetzen diogu: Zertarako balio du irakurtzeak? Eta idazteak? Eta behar bezala irakurri eta idazteak?.

Irakurketaren bidez komunikazio intenporala ezartzen dugu benetako edo alegiazko solaskide batekin. Idazketak eginkizun hori izan dezake edo, besterik gabe, gure frustrazio, egonezin eta gainerako "zio" horien izaki higieniko izan daiteke. Idaztea eskuaz hausnartzea da, pentsamenduak bideratzea eskua tresnatzat erabilita, emozioak antolatu eta zehazteko modu lasaiago eta argiagoa. Ahozko hizkuntzan zorroztasun handiagoz denborak, momentuko gorabeherek esku hartzen dute. Idazketak, aitzitik, ispiluarena egiten du eta gure hitzak eraikitzen dituen gogoaren gainean islatzen ditu, lehenik solas egitea eta ondoren pentsatzea ekiditen dela, gizakiengan berezkoa izanik ere. Irakurketaren eta idazketaren zailtasuna, behar duten barne-behaketaren ezinbesteko ariketan eta bere burutzean datza, are gehiago ahozko moduan hitza erraztasun handiagoz higatzen dela eta hizkuntzaren erabilera txarra lehenago onartzen dela kontuan harturik.

Baina Manuel de Mariano jaunak baieztatzen duen bezala, hobe da argi txikia piztea iluntasunaren aurka oihu egitea baino. Eta nire nahia idatzizko hitzaz baliatzea da hurbilekoek, lagunek, kideek eta abarrek ahoz adierazitako kezka eta arduren ibilgailutzat. Etorkizuneko irakurle eta idazleak hartzean arreta jarri nahi dut. Irakurleak batik bat, izan ere, askotan irakurtzen dena baino anitzez gehiago idazten baita, eta horrek errotik kutsatzen du gaitasun kritiko osasungarria duen banakoa osatu beharko lukeena.

Eta nire benetako jaun/andreok, salbuespen ohoragarri batzuk kenduta, ez gara gure etorkizuneko sendagile, filologo, pedagogo, kazetari, fisika kuantikoko irakasle...eta abarrekin komunikatzen. Profesional –eta pertsonaren- ikastun potentzialarekin baliozko komunikazioa ezartzeko, ez da aski betiko edukiak ematea, etengabe aldaketak egiteko prest egon beharra dago eta gizakia arrunt ongi ezagutzen duela usten duenaren berezko fedegabetasun eta errutinarik gabeko ilusioa beharrezkoa da. Irakaslea mahai txikiago batetik kontentagaitz behatzen dion beste irakasle batekin elkarrekintzan dagoen aktorea da. Gainerakoa tribuna batetik adierazitako eta errautsezko tapak dituen koaderno batean airean harrapatutako hitz aspergarriak dira, ikasgelak zeharkatzen dituzten, atearen atalasea igarotzen diren eta pasilloetan barrena jolas-orduko zalapartaren artean galtzen diren hitzak. Berau ulertzeak bizitza aldatzen ahal gaitu, batez ere zuena, irakasle jaun/andreok. Ilusioa norberarengan hasten da eta ez da bukatzen, norbera ez bada egokitzat jotzen duena.

Nik, nire garaikide gehienen antzera, El Quijote gorrotatzen ikasi nuen neurri horiek dituen obra baten testuinguruaz gutxi dakien hamabost urteko nerabe baten agendan ankerki sartuta egoteagatik. Zuzenduko dut, hogei urte luze eduki arte ezin izan nintzen aitonen seme ospetsuarekin adiskidetu –orain urteurreneko datetan gaudela, ahoan bere izena behin eta berriz darabilenak bere buruari galdetu beharko lioke ea zer egiten duen mana hori gose dela ez dakien aho gosetira eramateko-, zeren eta, jainkoaren izenean, argiak izan gaitezen, maisulan batez gozatzeak aurretiko ezagutza, jarrera, adin zehatza eta moral handia duten irakasle gogotsuak izatea eskatzen du. Bai laguntza txikia bokazioetarako, jaun/andreok, Gonzalo de Berceorengandik hasita! Mesede txikia egiten zaie idazketari, irakurketari, ahozko komunikaziori, irudiak eta teknologia berriek ezartzen duten errealitate berriaren aurrean ez ikusiarena egiten badugu! Ezin dugu gertaera hori alde batera utzi, eta horrela, aldaketa horiek ematen dizkiguten aukerak baliatu behar ditugu. Luis Alberto de Cuencaren olerki batek ikusleengana hitzarekiko maitasuna hurbil dezake. Baina betiere egun ezarrita dagoen hurrenkera alderantzikatuta, hau da, Luis Alberto de Cuencarengandik hasi eta Gonzalo de Berceorekin bukatuta. Horrela egiten saia zaitezte. Ikus-belaunaldia bere armen bidez berotzen ere saia zaitezte: ikus-entzunezko komunikazioa. Oraingo eta etorkizuneko belaunaldiek eskertuko dizute. Eta hori idazle izaten ikasten ari denak, aski kixoteskoa denak, eta bere laguna den Sancho Asiáin jaunaren laguntzat, gazte nafarrei umorezko poesiako zenbait errezital hurbiltzeko ideia ona izan zuenak esaten dizue.

IRAKURTZEKO GAITASUNEN AZTERKETARA HURBILTZEA LEHEN HEZKUNTZAN.

Angel Sanz Moreno - Hezkuntza Ikuskatzailea
Ikastetxeen ebaluazioa arloko koordinatzailea

2001-2002 ikasturtean ulermenezko irakurketaren ebaluazioa egin zitzaien Lehen Hezkuntzako seigarren mailan zeuden (hirugarren zikloa) Nafarroako ikasleei. 2003-2004 ikasturtean Lehen Hezkuntzako bigarren mai-

oroa

kero bere izenak gogoan ez dituzun aspaldiko ikasleek kalean egindako agurra, horixe da zure ahaleginen sari posiblea. Gainerakoa isiltasuna da.

Zure esanetara naukazu. Zure lankide eta irakasle ohiaren agur adeitsua jaso ezazu.

Tomás Yerro Villanueva
"Plaza de la Cruz" B.H.I. - Iruñea

"IRUDIAK IRAKURTZEA, HITZAK MARRAZTEA".

Daniel Aldaya, idazlea

Borgesi honako hau galdetu zioten: Zertarako balio du poesiak? Eta berak hauxe erantzun zuen: "Eta zertarako balio dute egunsentiek?". Era berean, geure buruari ere honakoa galdetzen diogu: Zertarako balio du irakurtzeak? Eta idazteak? Eta behar bezala irakurri eta idazteak?.



Daniel Aldaya

Irakurketaren bidez komunikazio intenporala ezartzen dugu benetako edo alegiazko solaskide batekin. Idazketak eginkizun hori izan dezake edo, besterik gabe, gure frustrazio, egonezin eta gainerako "zio" horien izaki higieniko izan daiteke. Idaztea eskuaz hausnartzea da, pentsamenduak bideratzea eskua tresnatzat erabilita, emozioak antolatu eta zehazteko modu lasaiago eta argiagoa. Ahozko hizkuntzan zorroztasun handiagoz denborak, momentuko gorabeherek esku hartzen dute. Idazketak, aitzitik, ispiluarena egiten du eta gure hitzak eraikitzen dituen gogoaren gainean islatzen ditu, lehenik solas egitea eta ondoren pentsatzea ekiditen dela, gizakiengan berezkoa izanik ere. Irakurketaren eta idazketaren zailtasuna, behar duten barne-behaketaren ezinbesteko ariketan eta bere burutzean datza, are gehiago ahozko moduan hitza erraztasun handiagoz higatzen dela eta hizkuntzaren erabilera txarra lehenago onartzen dela kontuan harturik.

Baina Manuel de Mariano jaunak baieztatzen duen bezala, hobe da argi txikia piztea iluntasunaren aurka oihu egitea baino. Eta nire nahia idatzizko hitzaz baliatzea da hurbilekoek, lagunek, kideek eta abarrek ahoz adierazitako kezka eta arduren ibilgailutzat. Etorkizuneko irakurle eta idazleak hartzean arreta jarri nahi dut. Irakurleak batik bat, izan ere, askotan irakurtzen dena baino anitzez gehiago idazten baita, eta horrek errotik kutsatzen du gaitasun kritiko osasungarria duen banakoa osatu beharko lukeena.

Eta nire benetako jaun/andreok, salbuespen ohoragarri batzuk kenduta, ez gara gure etorkizuneko sendagile, filologo, pedagogo, kazetari, fisika kuantikoko irakasle...eta abarrekin komunikatzen. Profesional –eta pertsonaren- ikastun potentzialarekin baliozko komunikazioa ezartzeko, ez da aski betiko edukiak ematea, etengabe aldaketak egiteko prest egon beharra dago eta gizakia arrunt ongi ezagutzen duela usten duenaren berezko fedegabetasun eta errutinarik gabeko ilusioa beharrezkoa da. Irakaslea mahai txikiago batetik kontentagaitz behatzen dion beste irakasle batekin elkarrekintzan dagoen aktorea da. Gainerakoa tribuna batetik adierazitako eta errautsezko tapak dituen koaderno batean airean harrapatutako hitz aspergarriak dira, ikasgelak zeharkatzen dituzten, atearen atalasea igarotzen diren eta pasilloetan barrena jolas-orduko zalapartaren artean galtzen diren hitzak. Berau ulertzeak bizitza aldatzen ahal gaitu, batez ere zuena, irakasle jaun/andreok. Ilusioa norberarengan hasten da eta ez da bukatzen, norbera ez bada egokitzat jotzen duena.

Nik, nire garaikide gehienen antzera, El Quijote gorrotatzen ikasi nuen neurri horiek dituen obra baten testuinguruaz gutxi dakien hamabost urteko nerabe baten agendan ankerki sartuta egoteagatik. Zuzenduko dut, hogei urte luze eduki arte ezin izan nintzen aitonen seme ospetsuarekin adiskidetu –orain urteurreneko datetan gaudela, ahoan bere izena behin eta berriz darabilenak bere buruari galdetu beharko lioke ea zer egiten duen mana hori gose dela ez dakien aho gosetira eramateko-, zeren eta, jainkoaren izenean, argiak izan gaitezen, maisulan batez gozatzeak aurretiko ezagutza, jarrera, adin zehatza eta moral handia duten irakasle gogotsuak izatea eskatzen du. Bai laguntza txikia bokazioetarako, jaun/andreok, Gonzalo de Berceorengandik hasita! Mesede txikia egiten zaie idazketari, irakurketari, ahozko komunikaziori, irudiak eta teknologia berriek ezartzen duten errealitate berriaren aurrean ez ikusiarena egiten badugu! Ezin dugu gertaera hori alde batera utzi, eta horrela, aldaketa horiek ematen dizkiguten aukerak baliatu behar ditugu. Luis Alberto de Cuencaren olerki batek ikusleengana hitzarekiko maitasuna hurbil dezake. Baina betiere egun ezarrita dagoen hurrenkera alderantzikatuta, hau da, Luis Alberto de Cuencarengandik hasi eta Gonzalo de Berceorekin bukatuta. Horrela egiten saia zaitezte. Ikus-belaunaldia bere armen bidez berotzen ere saia zaitezte: ikus-entzunezko komunikazioa. Oraingo eta etorkizuneko belaunaldiek eskertuko dizute. Eta hori idazle izaten ikasten ari denak, aski kixoteskoa denak, eta bere laguna den Sancho Asiáin jaunaren laguntzat, gazte nafarrei umorezko poesiako zenbait errezital hurbiltzeko ideia ona izan zuenak esaten dizue.

IRAKURTZEKO GAITASUNEN AZTERKETARA HURBILTZEA LEHEN HEZKUNTZAN.

Angel Sanz Moreno - Hezkuntza Ikuskatzailea Ikastetxeen ebaluazioa arloko koordinatzailea

2001-2002 ikasturtean ulermenezko irakurketaren ebaluazioa egin zitzaien Lehen Hezkuntzako seigarren mailan zeuden (hirugarren zikloa) Nafarroako ikasleei. 2003-2004 ikasturtean Lehen Hezkuntzako bigarren mai-

lako (lehen zikloa) eta laugarren mailako (hirugarren zikloa) ikasleak ebaluatu zituzten. Ebaluazio hauei esker Lehen Hezkuntzako zikloetan irakurtzeko gaitasunek duten garapen mailaren ikuspen globala eskuratzen dugu. Bi ebaluaziotan probak eta metodologia berdinak izan ez badira ere, ondorio batzuk atera ahal ditugu, ondorio horiek irakurketaren gutxi gorabeherako diagnostikoa egitea eta datozen urteetan gehiago landu beharko diren puntuak zein diren ikustea ahalbidetzen dute. Laburbilduz, ebaluazio hauen daturik nabarmenak aurkeztuko ditugu.

1. Irakurtzeko gaitasunak Lehen Hezkuntzako etapako lehen zikloan.

Bigarren mailako ikasleek ez dute zailtasunik izan Gaztelaniazko narrazio-testu baten irakurketa ulertzerakoan. Lau ikasletatik hiruk probak zituen helburuak betetzen dituzte eta lauetatik batek ez ditu horiek bete. Ebaluazioan planteatutako zereginak aztertuz gero, testua hitzez hitz ulertzea eskatzen zuten zereginetan, bigarren mailako ikasleek ez dutela inolako zailtasunik izan ikusi da. Hala ere, dedukzio txikia egitea edo irakurritakoan oinarrituta inferentzia egitea eskatzen zuten zereginetan adin hauetako ikasleek zailtasun dezente topatzen zituzten. Irakurritakoaren laburpena egitea eskatzen zuten zereginetan ere zailtasunak zeuden. Egoera hori ez da inolaz ere kezkagarria, izan ere, zikloaren bukaeran testuak hitzez hitz ulertzeko gaitasuna eskuratzen zuten.

Datozen ikasturteetan ulermen inferentzial eta laburpenarekin lotutako zereginak gainditzen dituzten ikasleen proportzioa haz dadila desiragarria izango litzateke.

Azalpenezko testu batean informazioa bilatzearekin lotutako zereginei dagokienez, egoera ez da hain ona. Hiru ikasleetako batek ez ditu proban planteatutako helburuak bete. Ikasleek hobekien egin zituzten lanen artean hitzez hitz ulertzea eskatzen zutenak daude, hauetan erantzuna testuan bilatzea arras erraza gertatzen zen lerrokadaren hasieran zegoelako edo aurkitzen oso erraza zelako. Zailago ziren arretaz irakurtzea eskatzen zuten galderak, izan ere, informazioa ez baitzen aurkitzen hain erraza.

2. Irakurtzeko gaitasunak Lehen Hezkuntzako etaparen bigarren zikloan.

Laugarren mailan egoera, oro har, oso antzekoa da. Lau ikasletako hiruk helburuak zabaltasun eta sakontasun txikiago edo handiagorekin betetzen dituzte, eta lauetako batek ez ditu betetzen. Ikasleek ongi ebazten dituzte testua hitzez hitz ulertzea eskatzen duten zereginak, baina zailtasunak izaten dituzte pertsonaien ezaugarri psikologikoak eta ezaugarri moralak jasotzerakoan, bestelako inferentziak egin behar zituztenean eta testua laburtzea eskatzen zuten zereginetan.

Azalpenezko testu batean informazioa bilatzearekin lotutako zereginei dagokienez, emaitza globalak aurrekoaren antzekoak dira; hau da, lau ikasletako hiruk helburuak zabaltasun eta sakontasun txikiago edo handiagorekin betetzen dituzte, eta lauetako batek ez ditu betetzen. Gehien bat zailtasuna izaten dute testu osoan zehar barreiatutako dagoen informazioa bilatzea eskatzen duten zereginetan (adibidez, jirafen ar eta emeen artean dauden alde guztiak bilatzea). Ez zuten zailtasunik horietakoren bat bilatzeko. Ezta lerrokada batean erraz aurki daitekeen informazio puntuala topatzeko ere.



Ikasleek liburutegian gozatzen dute

3. Irakurtzeko gaitasunak Lehen Hezkuntzako etaparen hirugarren zikloan.

Seigarren mailan egoera honako hau da: hamar ikasleetako zortzi kontaketa laburraren argumentua identifikatzeko eta inferentzia txikiak egiteko gauza dira, betiere testu laburrak baldin badira, testu laburren ideia nagusiak ere hartzen dituzte. Zailtasun handiena pertsonaien hitzen, jarreren eta baita ezaugarri psikologikoen ere zentzuaren inferentzia eskatzen duten zereginetan izan dute. Ikasleek zailtasunak dituzte testuan espresuki adierazita ez dagoen informazioa deduzitzeko.

Dibulgaziozko izaera duten azalpenezko testuak ulertzea eskatzen duten zereginei dagokienez, informazio zehatza ulertzeko arazorik ez dute, baina bai zereginek azalpenezko testuan adierazita dauden ideien garrantzia bereiztea eskatzen baldin badute.

4. Ondorioak.

Hiru zikloen emaitzak alderatzerik ez dago, ez dagoelako eskala komunik, probak ez berdinak izan baitziren, izan ere. Hala ere, aldez aurretik azaldutako datuetan oinarriturik hainbat ondorio atera ditzakegu. Jarraian, hainbat azalpen adierazita daude ondorio moduan:

a) Lehen Hezkuntzako ikasleek ez dute inolako arazorik testuak hitzez hitz ulertzeko; hau da, irakurtzen dutena ulertzen dute, baldin eta ariketetan ez bazaie eskatzen testuan argi eta garbi agertzen den informazio esplizitutik haratago joan daitezen, eta testuak ikasleen adinaren arabera egokiak badira.

Dibulgaziozko izaera duten azalpenezko testuetan erraz

Ikasleak ikastetxeko liburutegian.

aurki daitekeen informazio zehatza bilatzeko orduan ere ez dute arazorik.

b) Lehen Hezkuntzako ikasleek, hiru zikloetan, arazoak izaten dituzte testuan esplizitu ez dagoen informazioa ulertzeko. Adibidez, zailtasunak izaten dituzte pertsonaien ezaugarri psikologikoak jasotzeko eta egoera eta ekintzei buruzko inferentziak egiteko testuan agertzen den informazio esplizituan oinarrituta.

Testuan zehar sakabanatuta ageri den informazioa ateratzeko asmoz testua arakatzeko orduan ere arazoak izaten dituzte. Halaber, zailtasunak ere izaten dituzte ideien garrantzia bereizteko dibulgaziozko izaera duten azalpenezko testuetan.

c) Aurreko guztia ikusita, irakurketarekin lotutako oinarrizko helburuak gure ikasleek betetzen dituztela ondoriozta dezakegu eta, ondorioz, Nafarroan kontu honi dagokionez dagoen egoera onargarria da. Hala ere, munta eta garrantzi handiagoko helburuak ez dira bete ikasleen ehuneko handi batean, ondorioz, irakurketa lehen mailako helburu eta xedea izan behar da Nafarroako Lehen Hezkuntzako ikasgela eta ikastetxe guztietan. Erronka hori etapako hiru zikloetan zeharka egindako ikasleen kanpoko ebaluazioa ikusita deduzitzen da.

5. Hobetzeko proposamen zenbait.

Hezkuntza ebaluazioaren helburua errealitatea ezagutzea da, ikasleen garapen eta ikaskuntzarekin lotutako aldagai psikopedagogikoak neurtzerakoan egon daitezkeen objetibotasun, fidagarritasun eta baliozkotasun handiagoko parametroetatik ebaluatuta. Ezagutza horri esker aurkitutako akatsak zuzentzen dituzten neurriak diagnostikatu eta proposatu ahal ditugu baina, era berean, lortutakoaren mailari eutsi behar zaiola ahantzi gabe.

Hezkuntzako ebaluazio guztiek izan behar duten prestakuntzazko izaera honek justifikatzen du, zalantzarik gabe, berau onartu beharra dagoela hobekuntza eta kalitateko tresna pribilegiatutzat. Ikastetxeak prestatzen ari diren hobekuntzako planak ebaluaziotik abiatuta zehaztu behar dira, azken hori kanpoko edo barnekoa dela.

Hobetzeko plan horien barruan, ikastetxeek irakurketa-plana egin behar dute, eta hau baterakoa, sakona eta sistematikoa izan behar da. Baterako plana, bere baitan ikastetxe osoa hartu behar duelako, hala Haur Hezkuntza nola Lehen Hezkuntzako Etaparen hiru zikloak, hala tutoreak nola espezialistak. Plan sakona, irakurketan esku hartzen duten gaitasun guztien berri eman duelako: hitzez hitzekoa, inferentziala, globala, e.a. Era berean, irakurketa inplikatuta dauden egoera guztiak ere jaso behar ditu: lanak, interneten bilatzea, eskolako liburutegia, irakurketa familiarra, irakurketa formalago eta akademikoagoa ikasgelan, e.a. Azkenik, plan sistematikoa, jarduketa puntualek ez dituztelako bere helburuak erdiesten jarraipen eta sistematizaziorik ez dagoelako.

Plana zehatza izan behar da eta ziklo bakoitzean landu beharreko gaitasunak, zikloaren bukaeran lortzeko asmoa duten horien garapen maila, landu beharreko testuak, irakurketa nola, noiz eta non landu behar den eta bere ikaskuntza nola ebaluatu eta ikuskatu behar duten zehaztu beharra dago.

Horixe da gure ikastetxeek duten erronka handia. Era berean, irakurketa-planak ikasleen gurasoak ere aktiboki nahasi behar ditu. Ikastetxean burutzen dituzten neurriak ezagutu behar dituzte eta dagozkien bestelako batzuez ere osatu behar dituzte familiaren esparruan; izan ere, irakurketa guztion eginkizuna baita: irakasleak, gurasoak, liburuzainak, e.a. eta berau hobetzea erronka da bai eskolarako bai familiarentzat.

ULERMENEZKO IRAKURKETA ETA ATLANTE PROIEKTUA

Pedro González Felipe - Hezkuntza Plangintzaren Zerbitzuko Zuzendaria

Hezkuntza polemikara zabalik dagoen eremua dela, hezkuntza sistematik barne eta kanpo, adieraztea, ageriko zerbait da; era berean, halakoa da hezkuntzako praxiari buruzko oinarrizko erabakiak, erreferente komunak bilatzeaz tematzea. Sistema hori sartuta dagoen gizarteko sektore guztiek erabaki horiek aho batez onartu beharko lituzkete eta, horrela, biharko hiritarren eraikuntza pertsonalaren bidez gure ingurune sozial eta kulturalaren etorkizuna zehaztea ahalbidetzen digun egonkortasuna, behar-beharrezkoa dena, erdietsiko da.

Esparru horren barruan, atxikimendu gehien beregantzen duen puntuetako bat oinarrizko eta funtsezko gaitasunak bultzatzeko beharra da. Gaitasun horiek, berez helburu izateaz gain, ikasleek ikaskuntzako arlo guztien edukiak eskuratzea ahalbidetzen duen tresna ere izan behar dira. Hona iritsita, irakaskuntza-ikaskuntzako edozein prozesutan baliatzen den oinarrizko gaitasunetako bat irakurmena dela aitortu behar dugu, izan ere, ira-

oroa

kasle guztiek hizkuntza erabiltzen baitute eskolak emateko eta, gainera, ulermenik gabe ezin dela ikaskuntzarik egon agerikoa da.

Hala eta guztiz ere, eta esparru honetan topatutako zailtasunen inguruan ebidentzia anitz egon arren, denok ezagutzen ditugu 2001-2002 eta 2003-2004 ikasturteetan, hurrenez hurren, Lehen Hezkuntzako 6. eta 2. eta 4. mailetako Nafarroako ikasleei egindako ebaluazioen datuak, indarrean dagoen Eskolako Kurrikuluan oraindik ez dago ulermenezko irakurketaren azalpen eta egituraketarik, hau da, arlo bakoitzean ulermenezko irakurketa zer, nola eta noiz irakatsi eta ebaluatu behar den ez dago zehaztuta.

Hala eta guztiz ere, eta egoeraren jakitun garela, Hezkuntza Sailak Nafarroako ikasleen hizkuntz gaitasunak hobetzeko jarduketak gaineratu izan ditu, jarduketa horiek Ikuskapen Zerbitzuaren Ebaluazio eta Kalitate Planean, Irakasleen Trebakuntzarako urteko Planetan, Aniztasunaren Arreta Planean edo Blitz serieko hizkuntz gaitasunei buruzko argitalpenetan jasota daude. Jarduketa hauek guztiek aurrekari berbera izan dute; Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan ulermenezko irakurketa tratatzeko orientazioak ematen dituzten 583/2002 eta 527/2002 ebazpenak. Hizkuntz gaitasunen tratamenduari dagokionez bi ebazpen horiek inflexio-puntu garrantzitsua izan badira ere, arlo honetan hainbat esparrutatik egiten zituzten ekintzak sekuentziatu eta beraiei koherentzia emateko koordinazio orokorreko eskema aurreikusi ez zela agerikoa da; horixe da, hain zuzen ere, ATLANTE PROIEKTUAK Nafarroako hezkuntza sistemari ekarri nahi diona, hau da, esparru orokorra, eta honetan Hezkuntza Sailak Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako mailetan burutzen ari den jardun ildo guztiak sartuko dira, eta helburu argia izango du; maila horietako Nafarroako ikasleen oinarrizko gaitasunak hobetzea eta ondorengo ikaskuntzei arrakastaz aurre egiteko prestatzea.

Atlante Proiektuak, beraz, Hezkuntza Sailaren aurreko ekimenak eta orain arte Nafarroako ikastetxe bakoitzean garatutako lan nekeza balioztatzen ditu abian jarritako neurrien bidez, hauen buru bertako Zerbitzuak egonik, halaber, barneko koherentzia ematen die eta jende guztiak bere egiten duen helburu bakar eta argira bideratzen ditu. Premisa horretatik abiatuta, Atlante Proiektuak hamar arlo kritiko zehazten ditu, behar bezala zehaztutako hobetzeko ildo egokia dutenak, eta egoera horren arabera 50 helburu estrategiko proposatzen ditu; helburu horiek hezkuntza sisteman eragina duten eremuei dagozkie, kurrikuluarenetik hasi eta antolaketarenera bukatuta, irakasle, familia eta gizartea berarenetik igarota. Helburu horietako bakoitza lortzeko asmoz, neurtzeko hainbat adierazle eta denbora-sekuentziazioa ematen dira, eta horri esker, Atlante Proiektua Hezkuntza Sailaren Plan Estrategiko bihurtzen da datozen 3 urteetarako.

Proiektuak oinarrizko gaitasunak bi arlo nagusitan banatzen ditu: hizkuntzakoak, eta hauen barruan ulermena eta ahozko eta idatzizko adierazpena, eta matematikak, hemen kalkulu mentala eta arrazoibide logikoa jasota daude. Koordinazioko esparru orokorra marrazteaz gain, berritasun handiak ere dakartza, hala nola arlo guztietan estandarrak ezartzea, horrela, hala irakasleek nola ikasleek horietako bakoitzean, baina batez ere oinarrizko eta bitartezko bi ikasgai hauetan, jakin eta egin behar dutena edo ulermenezko irakurketak kurrikuluko arlo guztietan duen tratamendu berezi, programatu edo ebaluagarria jakingo dute. Kurrikuluko arlo horiek HKLO abiaraztean prestatu zuten kurrikuluan jasota zeuden, orain hori bertan behar utzi dute, baina neurri hori 2005/2006ko hurrengo ikasturterako aurreikusita dagoen hezkuntzari buruzko lege berria promulgatzen denean Sailak garatu beharko duen kurrikuluan ere jasota egongo da.

Eskuartean dugun gaiari dagokionez, Atlante Proiektuak ulermenezko irakurketari buruz aurretik adierazi diren ebazpenak onartu, bere egin eta Proiektua osatzen duten berrogeita hamar helburu estrategikoen artean araupetzeaz gain, jarduteko eremu kritikoetan aurrenekoa eta nagusia dena eta dagokion hobetzeko ildoa ere dedikatzen dizkie, "Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleen hizkuntz gaitasun eta matematika maila nabarmen hobetzea". Helburuen mailara jaisten garela, aurreneko helburuak hizkuntza garatzen ematen duten denbora handitzeko xedea duela ikus dezakegu. Bigarren helburuak kurrikuluaren arlo guztietan hizkuntz gaitasunak ikasten emandako denbora handitzeko xedea du. Hirugarren helburuak, berriz, garapen hori irakasle guztien programazioetan sartzen du, eta seigarren helburuak Ikastetxeko Irakurketa Plana proposatzen du. Prozesu horri 35 helburuan bukaera ematen zaio, azken helburu honen bidez hizkuntza guztien kurrikulu integratua planteatzen da, horrela, hala komunikazio-hizkuntzak nola gainerakoek hizkuntzako planteamendu berberak jarraitzen dituzte, eta hauek, bistan denez, horien guztien ikaskuntza ikasten lagunduko dute.

Atlante Proiektua Nafarroako Hezkuntza-komunitate eta

Atlante Proiektuaren Logotipoa.

oroa

gizarte osoaren aurrean iragan urriaren 27an aurkeztu zuten Nafarroako Biltzar Jauregian. Bertara Haur eta Lehen Hezkuntzako zuzendari gehienak, ikastetxe publiko zein pribatuetakoak, joan ziren eta eragin duen ilusioa emaitzetan islatuta ikusiko dela ziur gaude. Nafarroako gizarte osoaren laguntza behar duen proiektua da, denek bere eta komunitateko seme-alaben etorkizuna optimismoz ikusi nahi baitute aldatzen ari den mundu honetan, bertan hobekien prestatuta daudenek bizi-kalitateko baldintza onenak gozatuko dituzte eta, gure lurrerako, guztiontzako aurrerapen sozial eta ekonomikoko egoera ahalbidetuko dute.

IRAKURKETA ETA IDAZKETA KAZETARIEN ZEREGINEAN:

HITZAREKIN LAN EGITEA

Sonsoles Echavarren - Diario de Navarra egunkariko idazlaria

Kazetari gisa lan egiten hasi nintzenean, arratsalde osoa behar izaten nuen egunkariko orrialde erdia idazteko. Eta hori ere gutxi zela iruditzen zitzaidan eta arazoak izaten nituen. Egun, sei urte geroago, orrialde bat parte bat ordutan idazten ahal dut. Zer gertatu da urte hauetan? Bi gauza baino ez, denbora eta praktika.

Sonsoles Echavarren

Orrialde zuriaren sindromea pairatzen duten pertsonak daude, hau da, ezerezetik testua sortzea izugarri kostatzen zaie. Egunero hitzarekin lan egiten dugunok, baina, ezin dugu horrelakorik egin. Egunero informazioa, elkarrizketa edo erreportajea ekoitzi behar dugu, biharamunean milaka lagunek irakurriko duten testua. Baina ez gara horretaz pentsatzera gelditzen. Idatzi egiten dugu, besterik gabe. Eta batzuetan, informazioa sortzen den orduaren arabera, erlojuaren kontra. Idazlari gehienek ia mekanikoki idazten dugu. Epe luzerako erreportajea prestatu behar baldin badugu soilik testuaren hasiera egiten eta berregiten eta hitzez gozatzen denbora handiagoa eman dezakegu.

Kazetaritza eta literaturaren artean dagoen hurbiltasunaz anitz hitz egin da. Eta idazle handiek eskualdeko egunkarietan gertaeren kronikak idazten hasi zirela. Baina praktikan antzekotasun baino alde handiago daude eta, salbuespen batzuk kenduta, kazetari-idazle-bohemioaren ideia desmitifikatu beharra dago. Kazetari eta eleberrigileen artean oinarrizko bi diferentzia daude: kontatzen dena eta nola kontatzen da. Bi testuon edukiak ez du zerikusirik: eleberrigileak asmatutako istorioen berri ematen du, eta kazetariak, berriz, ezin du asmatu, gertatu dena kontatzeari lotu behar zaio. Bere oinarrizko arauetako bat objektiboa izatea da. Ez du kontatzen dena baloratu behar baina irakurleari elementu nahikoak eman behar dizkio hori balora dezan eta horren gaineko irizpidea eman dezan. Erabilitako hizkuntza ere bestelakoa da. Erredakziora iristean ikasten diren lehendabiziko gauzetako bat da hizkuntza burokratiko, ekonomiko, zientifikoa... itzuli behar dela eta banku baten memoria, herri lanen txosten batzuk edo bere doktoretesia defendatu berri duen norbaiti eginiko elkarrizketa "gure amatxiri kontatzen ariko bagina bezala" idatzi behar dugula.

Baina aholkuak lehenagotik zetozen. Unibertsitatean irakatsi ziguten kazetari ona izateko entzuten jakin eta asko irakurri behar dela. Aurrenekoa egunero egiten dugu, idazlariak, funtsean, jendearekin hitz egiten dugun pertsonak garelako. Guk ez dugu inoiz formazio guztia baina besteekin (bizilagunak, agintariak, intelektualak...) hitz egitean osatu ahal dugu. Bigarrena ere egiten dugu, baina gure modura pixka bat. Egunero gure eskuetara komunikazio-kabineteek prestatutako prentsa-oharrak iristen dira, eta horiek irakurri, interpretatu eta itzuli behar ditugu. Egunero berri-agentzien teletipoak ere irakurri behar izaten ditugu, horiek minuturo gure ordenagailuaren pantailara agertzen dira munduko bazter guztietatik. Eta, jakina, egunkariak irakurtzen ditugu. Gurea, zeren berri ematen dugun eta lankideek zer idatzi duten ikusteko; lehiakideenak, argitaratzen dituzten albisteak ikusteko eta, denbora gelditzen bada, eskualdeko edo nazioko bestelako egunkariak.

Eta literaturaren maisulanak? Eta nahitaez irakurri beharreko eleberriak eta best-sellerrak? Jakina baietz. Baina askoz gehiago egiten genuen unibertsitate garaian. Orain astia geratzen denean bakarrik, asteburuetan eta oporretan baino. Idazten idatziz ikasten dela dioen ideia egia da. Handiak, batez ere. Tamalez, hitzekin lan egiteak aisi urria uzten du eta literaturarekin maiteminduta gaudenok orduak nola edo hala atera behar ditugu irakurri ahal izateko. Edo gauza bera dena, idazten ikasten jarrai dezagun.

KAZETARITZA: LITERATURAREN JANARI LASTERRA, HISTORIA LETRA XEHEZ

Jesús Iribarren Corera - Diario de Noticias egunkariaren idazlaria

Kazetariak buzoa daramaten idazleak dira, egunez eguneko historialariak dira. Kazetaritza lanbidea da. Literatura artea da. Historia, hitz handiagoa da. Zenbait kazetari Historian sartzen dira idazle onak izateagatik (García Marquez, Hemingway...) baina oso idazle gutxi izan daitezke kazetari onak. Denek istorioak, giza istorioak (letra xehez) kontatzen dituzte, baina errealitate baten eta bestearen arteko aldea denbora da. Kazetaritza azkar irakurri, idatzi eta irakurria izatearen artea da: letren janari lasterra, Literaturaren eguneko

oroa

menua. Egunkari bateko orrialdea idazteko 3 orduz egon gaitezke eta 24 ordutan, gutxi gorabehera, honezkero paper horitua, zakarrontziko bola zimurtua edo ogitarteko baten bilgarria izango da. Dagoeneko zezenen aurrean erabiltzeko ere ez du balio, ia ez duelako inork egunkari bilduta eskuan daramala entzierroan korritzen, azken hau amaiera duin eta epikoxeago izanik teklatuaren gainean erlojuaren kontra pedalei eragiten diegula dugun lan txalogarri honetarako. Eta hori albisteak eskuan eta beldurra gorputzean zituztela Santo Domingo aldapa igotzen zuten korrikalariek ez zekitela agian biharamunean beraiek egon zitezkeela egunkariko azalean bertan.

Jesús Iribarren Corera

Albistea bilatzeko –prentsa-artikuluaren arima- asko ikusi, entzun eta irakurri behar da. Lerro artean irakurri behar da, diagonalean irakurri behar da, gertatzen denaren oinarria irakurri behar da, irakurketa bikoitzak bilatu behar dira, bati baino gehiagori direnak eta ez direnak esan behar zaizkio... Konferentzia publikoen edo ezkutuan jakinarazitako txostenen milaka hitz, ehunka irudi eta hamarka ahots kazetari baten burutik iragaten dira –honek bere tesia eta bere ondorioa, bere titulua eta bere despiezea hausnartzen joaten da- erredakziora abiatzen den bitartean dir-dir egiten duen ordenagailuaren pantailari aurre egiteko asmoz, azken honek ez du literatur lizentziarik onartzen, hala nola "inspirazioa" etorri arte itxarotea, berriro irakurtzea edo biharamunean zuzentzea. Kazetaria gauzak ongi egiteko dagoen denbora-presioaz kexu agertzen da baina, ziur aski, ordu gehiago izanda, ez ginateke izango testua hobetzeko gauza. Hori da, bederen, II. Munduko Gerraren beterano baten memoriak idazterakoan izan nuen sarraldi sasi literario publiko bakarrak utzi zidan inpresioa. Hain bizkorra den informazioaren mundu honetan, kalitate/prezio, emaitza/emandako denbora erlazioa da balio duena. Kazetaritzan, denbora urrea da.

Prentsan dena da atzorako. Gainerako hiritarrok baino egun bat aurretik bizi gara eta orrialdearen bazterrean datak jartzen ditugula zahartzen gara. Baina presa horrek, edizioaren itxieraren aurkako borroka horrek ezin du irakurria izateko idaztearen poz intimo eta erantzukizun publikoa arindu. Eta garia lastotik, garrantzitsuena osagarritik bereizteko, eta ahalik eta gutxiagotan kontatzeko gaitasun hori ez da inprobisatzen. Eguneratzen den eta egunero probatzen den ahalmen horren neurri handi bat aldez aurretik dagoen irakurketarako zaletasunetik –ia obsesioa- dator. Kazetariak hiztegiak gorrotatzen ditu baina Literaturaren Historiaren libururik onenak eta azken berritasunak irakurri izanaz harrotzen da. Informatzaileek, aho betean bere buruaz seguru, lehiakideen egunkariari garrantzia kentzen diote baina goizero bihotza estututa kioskora joaten dira jakiteko albisteren bat kendu dieten edo egiaztatzeko lehiakideek ez dutela gertaera berbera hobeki kontatu. Goizero igandekoa, jaieguna bada, (egun horretan lanbidearen izen propioak, kazetaritzako jainkoak eta egunkari garrantzitsuenak irakurri ere egiten dituzte) edo oporretan izan ezik, baina arraroa ere izaten da kazetariak atzerrira egindako bidaiaren oroigarri gisa goiburu exotikoa ekartzen ez badu edo iragaitzaz dagoen hiri bateko prentsa, gainetik bada ere, begiratzen ez badu.

Irakurketarik gabe ez dago idazketarik baina idazketa hutsarekin soilik, ez dago kazetaritzarik. Egunkari bateko orriak, eta are gehiago gaur egun Internetekin, lanbidez kanpoko testuez betetzen hasten dira. Jende guztiak futbolaz edo politikaz duen iritzia ematen duen bezalaxe, edozeinek pentsatzen du erreportaje edo albiste bat kalibratzeko, edo are gehiago, kazetari edo informatzailearen gaineko iritzia emateko gauza dela. Ez da korporatibismoa, baina titulurik gabeko sendagile batek ebakuntza egin diezaion inork utziko ez lukeen modu berean, harrigarria gertatzen da egunkari batean hutsunea betetzera (lanbidea degradatzen duen hitz madarikatua) edozein ausartzea. Eta txanponaren beste aldea: eraikuntzako peoi batek ez luke inolaz ere onartuko zortzi orduz zementu-zakuak alde batetik bestera eramaten egotea kobratu gabe, baina milaka bekadunek erredakzioetan hilabeteak ematen dituzte nominarik gabe. Bizitzaren legea? Irakurriak izatearen nahia? Kazetariak munduaren salbatzaileak dira egia kontatzeagatik? Bokazioa dela pentsatzen dut. Nik, hain zuzen ere, eskolan aurkitu nuen, fotokopien bidez atseden orduetako albisteei buruzko eguneroko kazeta baten proiektuarekin. Hori, zorionez, ez zuen inoiz argitaratu ikasi eta biziraun nuen auzoko herri ikastetxe hartan, baina bertan fakultatean baino anitzez gehiago ikasi nuen bizitzaz eta kazetaritzaz. 80ko urteak ziren eta Iruñean gauza anitz gertatzen ziren. Eta kazetaritza familiaren tradizioaren bitartez jaso nuen. Ez ezazue pentsa, baina, errotatiba eta linotipiaren munduko aurreko handiak ditudanik, ez, nire aiton-amonak langileak eta postariak ziren eta goizero egun desagerturik dagoen egunkaria banatzen zuten eta ardurapean zuten herriko tabernan haran osoko albisteak elkartzen ziren. Nire gurasoen haserrerako, oso txikitatik konturatu nintzen gure familian dohaina genuela: bi gauza aldi berean egiteko gai ginen, egunkaria irakurtzea eta semaforoari begira-tzea... Egunkaria betidanik nire lanaldi bakoitzaren egunsentia izan da. Orain ere eguneroko ogia ematen didana eta gau askotan loa kentzen didana ere bada. Baina letra gutxi bakar batzuen bidez mundua aldatzearekin amesten ahal da. Eta horrek ez du preziorik.

erso

HITZAREN BALIOA SUKALDE ETA JATETXEAREN MUNDUAN

Atxen Jiménez - (Túbal jatetxea)

Agian hasiera batean eta gehiegi pentsatu gabe, pentsa daiteke ahozko adierazpenak ez duela zerikusirik gurea bezalako jatetxe baten arrakasta handiagorekin edo txikiagorekin.

Bada oso oker gaude, hala pentsatuz gero.

Garrantzitsuena, zalantzarik gabe, sukaldaritza aberatsa, nortasuna duena, lortzea da, horretarako kalitate handiko lehengaiak erabiltzen ditugula. Halaber, horrela gure bezeroei plazera eta gozamena ematen dituzten eta beraiengan berriz itzultzeko gogoa sortzen dieten jaki gozoak eta erakargarriak prestatzeko dugun trebetasuna ere erakutsi nahi dugu.

Baina hori ez da nahikoa, gainerakoa gure ahozko komunikazioaren menpe dago. Eta baita komunikazio idatziaren menpe ere; karta erakargarria, argia, esplizitua izan behar delako, baina, hori bai, irakurri bezain laster, gu bertan egon behar gara zalantzak argitzeko, jaki bakoitzaren ezaugarriak eta bertuteak deskribatzeko eta abileziaz eta konbentzitzeko moduan aholkatzeko.

Eta hori guztia ez da nolanahi lortzen. Hizkuntza zuzen erabili behar da, ulergarriak diren sukaldaritzako hitz profesionalak erabilita, zorroztasunez baina gizabidez, gehiegizko konfiantza desegokirik gabe... Konfiantza eta sinesgarritasuna helarazi behar direlako, baina kasu!, hizkuntza berak ez du guztientzat balio. Bezeroa ohikoa denean eta bere izaera eta lehentasun gastronomikoak ezagutzen direnean kontua asko errazten da, baina berriak direnean behatzeko gaitasunaz baliatu behar gara, horrela, dialektika egokia erabili ahal izan dezagun.

Gure asmoa da bezeroak hala janariarekin nola tratuarekin, zerbitzuaren efikaziarekin, bere jendetasunarekin eta bere adeitasunarekin, eta jarrerarekin pozik daudela joan daitezela da. Eta hori guztia lortzeko, argi dago eredugarri izan behar garela. Gure hizkuntza, gure bezeroei adierazteko eta zuzentzeko modua gainerako guztiek jarraitzen duten eredua izan behar da.

Ondorioz, oso argi dut hitzak guretzat duen garrantzia, bai kanpoko alderdian, jendeari begira, bai barneko alderdian, sortzailea eta kontrolatzailea suen inguruan, bertan hizkuntza zehatza eta kementsua ere izan behar da, nahiz eta batzuetan mingaina behar baino azkarrago joaten zaidan, izan ere, ideiak, aginduak edo gomendioak berehala helarazteko gogoak metrailadore baten antzera hitz egitera eramaten bainau.

Ez dut gomendatzen. Niri gustatuko litzaidake beti hizkuntza patxadatsua, premiazkoa izan gabe, sinesgarria eta, aldi berean, adeitsua, lasaia eta atsegina, baina zuzena, erabiltzea. Zaila, ezta? Bada, saiatu behar gara...

Sukaldaritzarako nire zaletasunari dagokionez, neurri handi batean, familian bertan izandako praktikaz gain, umetatik, nire eskuetara iristen ziren sukaldaritzako liburu guztiak etengabe eta grinatsu irakurri izanari zor diodala esan beha dut. Ohitura honi, naturala denez, nire bizitza osoan zehar eutsi diot eta sukaldaritzari buruz dakienaren zati handi bat horri zor diot, ezagutza hori eskuratzea ezinezkoa litzateke-eta letra inprimatuaren laguntzarik gabe.

Orain, sukaldaritza eta jatetxe-arloko eskarmentu urte hauen guztien laburpen azkar hau egiten dudala, inoiz baino gehiago konturatzen naiz zein zaila den guretzat sukaldaritzako hitz zuzena, adjektibo egokia erabiltzea, zaporeak, saltsak eta guk geuk sortu ditugu errezetak deskribatzea... Bai plazera!, gogo eta sabeletan espero dutenarekiko ilusioa piztea, pozik joango diren esperantza dugula.

Ez al da benetan ederra?
Ez al du merezi ahalegin pixka bat egitea hitza sukaldaritzaren parean egon dadin?
Ni horretaz konbentzituta nago.

Atxen Jiménez

rents

- "Ikasgeletako indarkeriak Nafarroako ikastetxeen %10ari eragiten dio". NUPeko ikastaro batean arazoaren konponbideak erakusten dituzte. Diario de Noticias 04-09-08

- "2.000 supergaituren bila dabiltza". Europako Biltzar batek aste honetan gaitasun handiko umeetan aditu diren 200 lagun bilduko ditu Iruñean. Bere kopurua dakite, 2000 ikasle nafar, baina ez bere izena. Diario de Navarra 04-09-09.

- "Sácale punta". Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Sailak programa berria aurkeztu du gazteenen artean irakurketa eta idazketa sustatzeko. Diario de Noticias 04-09-28

- "Gobernuaren hezkuntza proposamena erlijioko ikasgaia arinkeriaz tratatzen du". Psikologo eta irakaslea den Abilio de Gregorio jaunak atzo Iruñean ziurtatu zuen erlijioa ebaluagarri izateari uzten badio berriz ere bigarren mailako ikasgai bilakatuko da. Diario de Navarra 04-10-03

- "Zizur institutuko talde batek ikerketa saria irabazi du Madrilen. Matematika kurba bati buruzko egin zuen lana autonomia guztietatik bidalitako 234 lanen artean saritu zuten. Diario de Noticias 04-10-12

- "Ikastetxeek, 2004. urteko kalitate sariak hartzen dituzte". Artikuluak Diario de Navarra (04-11-18) eta Diario de Noticias (04-10-06, 04-11-12 eta 04-11-16) egunkarietan.
Urtsulatarren ikastetxea (Iruñea)
Jesulagunen ikastetxea (Iruñea)
"Cuatrovientos" BHI (Iruñea)
"Alhama BHI (Corella)
"Basoko BHI (Iruñea)
"Benjamín de Tudela" BHI
"ETI" BHI (Tutera)
"Marqués de Villena" BHI (Martzilla)
BHI Politeknikoa (Tafalla)
Valle del Ebro BHI (Tutera)
"Larraona" ikastetxea (Iruñea)
"Santísimo Sacramento" (Iruñea)
"Santa Teresa" (Iruñea)
"Nuestra Sra. Del Huerto (Iruñea)
"El Puy Mater Dei" (Lizarra)
"Santa Ana" (Lizarra)
"La Anunciata" (Tutera)
"San Francisco Javier" (Tutera)

- "Ikasleen arteko jazarpena". "Bullying" izeneko fenomenoa egun denon ahotan dago, eta aditu baten laguntzarekin zertan datzan, bere kausak zein diren eta nola aurre egin aztertuko dugu. Diario de Navarra 04-11-16.

- "Baiioetan heztea". Modu berri batez irakasteko helburua duela, Tuterako Virgen de la Cabeza H.I.ko Gurasoen Elkarteak sari nazionala eskuratu duten tailerrak antolatu ditu. Diario de Noticias 04-11-16.

- "Gurasoek irakasleen autoritatea errespetatu behar dute honek umeak zigortzen dituenean ". El pedagogo Alberto Cascante izeneko pedagogoak astearte honetan Bullyng delakoari buruzko hitzaldia eman zuen, hitzaldia umeek eta baita guraso batzuek ere batzuetan asmatzen dituzten jazarpenei buruz izan zen. Diario de Navarra 04-12-09

- "Azterketa irakaskuntzari ". 15 urteko ikasleek bere gurasoek 13 urte zituztenean baino gutxiago al dakite? Espainiako sistemak ahaleginik egiten ez duena saritzen al du? Desmoralizazioa irakasleen bidaidea al da?.Diario de Navarra 04-12-19

iblio

- "La calidad en el aula". Hezkuntzako kalitatea hobetzeko Francisco Giner de los Ríos XVIII. Sariak. BBVA fundazioa.

- "Guía informativa para el alumnado inmigrante" (hainbat hizkuntzatan). Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Saila.

- "Proyecto Atlante/Atlante Proiektua". Hezkuntza Saila.

- "Cómo preparar una exposicional oral en todas las áreas de secundaria/ Nola prestatu ahozko azalpen bat Bigarren Hezkuntzako arlo guztietan". Hezkuntza Saila.

- "Los Fueros y las Instituciones de Navarra/Nafarroako Foruak eta Instituzioak. Hezkuntza Saila.

- "EGA 2001-2002". Hezkuntza Saila.

- "Sistemas de Bienestar Social en Navarra (1990-1999)". Gizarte Zerbitzuak, Etxebizitza eta Justizia. NUP.

- "Regards sur l'education": Les indicateurs de L'OCDE. Editión 2004. OCDE.

- Las cifras de la educación en España". Estatistikak eta adierazleak. 2004ko edizioa. MEC.

- "Datos y cifras". 2004-2005 ikasturtea. MEC.

- "Criterios psicopedagógicos y recursos para atender la diversidad en secundaria". Javier Onrubia (koord.) eta Teresa Fillat and.. GRAO argit., 201. Ikasgelako Liburutegia.

- "Una Educación de calidad para todos y entre todos". Hezkuntza eta Zientzi Ministerioa.

iblio

- "El Quijote y la educación. Hezkuntza Aldizkaria, aparteko zenbakia.

- "Los valores en la escuela hoy". Aula aldizkaria. 2004ko azaroa. 136. zkia.

- "Otra educación. Otras escuelas". Monografikoa. Pedagogiako koadernoak, 2004ko abendua, 341. zkia. Ciss Praxis.

- "El futuro de la formación inicial del profesorado y convergencia europea". Monografikoa. Revista Organización y Gestión Educativa aldizkaria, 6. zkia. 2004ko Azaroa-Abendua.

- "Educación y Deporte". Revista de Educación adizkaria. 335. zkia. Iraila-Abendua. 2004. MEC argit.

- "Vamos a leer". Irakurketarako zaletasuna eskolan hezteko baliabideak. Udal Hezkuntza Programa. "Animación a la lectura en centros escolares". Iruñeko Udala. CD.ROM.



- "Memoria de actividades culturales, sociales y deportivas2003-2004". Nafarroako Unibertsitatea. Universidad de Navarra argit.

- "Libertad y derecho a la enseñanza de la religión". Jesús López Medel . Dykinson argit.

- "Qué será de nosotros los malos alumnos". Alvaro Marchesi . Alianza Ensayo argit.

- "De las concepciones a los modelos en la enseñanza de las ciencias". Alambique bilduma. 42. zkia. GRAO argit.

- "Los derechos de la infancia". Nafarroako Herriaren Defentsaria. Defensora del Pueblo de Navarra argit.

- "La tercera revolución educativa". Hezkuntza ezagutzaren gizartean. José Mª Esteve. Paidós argit.

Nafarroako Liburutegi Publikoen orri-markatzailea

eger

- **DBHko eskolatze-liburua betetzeko jarraibideak,** 2003/2004 urtean irakaskuntza hauek egiten ari diren ikasleei zuzenduta. Ekainaren 17ko 157/2004 F.A., (2004. urteko abuztuaren 13ko 97. NAO)

- **Administrazioko eta Finantzetako goi mailako teknikari titulua.** Abuztuaren 9ko 272/2004 F.D. 2004 urteko irailaren 3ko 106. NAO.

- **Nekazaritzako Ustiategi intentsiboetako teknikari titulua.** Abuztuaren 9ko 271/2004 F.D.. 2004. urteko irailaren 22ko 114. NAO.

- **Arreta soziosanitarioko teknikari titulua.** Abuztuaren 9ko 269/2004 F.D.. 2004. urteko irailaren 22ko 114. NAO.

- **Farmaziako produktuen fabrikazioko teknikari titulua.** Abuztuaren 9ko 274/2004 F.D.. 2004. urteko irailaren 24ko 115. NAO.

- **Industri Ekipoak Mantentzeko goi mailako teknikari titulua.** Abuztuaren 9ko 270/2004 F.D. 2004 urteko urriaren 6ko 120. NAO.

- **Gorputz eta Kirol jardueren animazioko Goi Mailako Teknikariko Titulua.** Abuztuaren 9ko 273/2004 F.D., 2004. urteko urriaren 13ko 123. NAO.

- **Plastikoak edo Kautxua Eraldatzeko Eragiketetako Titulua.** Abuztuaren 9ko 275/2004 F.D., 2004. urteko azaroaren 10eko 135. NAO. Otsailaren 18ko 42/2000 F.A.ren **aldaketa,** besteak beste, 25 urte baino gehiagoko pertsonak **Unibertsitatean sartzeko proba** araupetzeko. Abuztuaren 23ko 228/2004 F.A. (2004. urteko irailaren 20ko 113. NAO).

- Eskolako irakaskuntzak ematen dituzten irakasleen kidegoetan eta Hezkuntzako **Ikuskatzaileen Kidegoan** sartzeko eta espezialitate berriak eskuratzeko **araudia.** Otsailaren 27ko 334/2004 E.D. (otsailaren 28ko 51. BOE).

- **Atzerriko tituluak** eta ikasketak **homologatzea** eta baliozkotzea eta **Goi Mailako Hezkuntza.** 1830/2004 ERREGE DEKRETUA. Beraren bidez, Goi Mailako Hezkuntzako atzerriko tituluak eta ikasketak homologatu eta baliozkotzeko baldintzak araupetu zituen otsailaren 20ko 285/2004 Errege Dekretuaren zenbait artikulu indarrean sartzeko epe berria ezarri zuten. (2004. urteko abuztuaren 31ko BOE, 210. zenbakiduna).

- **Goi Mailako Hezkuntzako atzerriko tituluak** eta ikasketak homologatu eta baliozkotzeko baldintzak **araupetzea.** Azaroaren 3ko 2686/2004 ECI Agindua . (2004. urteko azaroaren 15eko 275. BOE).

- Nafarroako Foru Komunitatean **atzerriko ikasleei** eta gutxiengo soziokultural behartsuei emandako **hezkuntzako arretaren araupetzea.** Irailaren 16ko 253/2004 A.F., (Urriaren 27ko 129. NAO).

- Nafarroako Foru Komunitatean atzerriko ikasleei eta gutxiengo soziokultural behartsuei emandako hezkuntzako arretaren araupetzea. Irailaren 16ko 253/2004 A.F., (Urriaren 27ko 129. NAO).

2004/2005 ikasturtean espresuki baimentzen diren zentroetan garatu beharreko prestatzeko ikastaro esperimentala ezartzen da. Ikastaro honen helburua heldutasuna eta beharrezko gaitasunak eskura ditzaten laguntzea da deitzen den sartzeko proba bereziaren bidez goi mailako zikloetan sar daitezen laguntzeko. Proba honek hezkuntzaren kalitateari buruzko 10/2002 Legearen 38. artikuluaren eta lanbide heziketa espezifikoaren antolamendu orokorra ezartzen dien 362/2004 E.D.aren 20. artikuluaren legezko babesa du.

Ikastaro hauen antolaketa aurreko urteetan egindakoaren antzekoa da (ekainaren 9ko 415/2003 ebazpena; 2003. urteko abuztuaren 13ko 103. NAO), sartzeko probak baloratzeari buruzko aldaketa batzuk izan ezik.

Prestatzeko ikastaroak urtebeteko iraupena du, eta astero 30 ordu emango dira. Jarduerak burutzeko egutegia baimendutako zentroan emandako gainerako ikasketetarako ezarrita dagoen berbera izango da. Ikasgela bakoitzean, gehienez, 30 ikasle egongo dira, eta gutxienez 12 ikasle behar dira aukerazko ikasgaia antolatu ahal izateko. Batxilergoko irakasle habilitatuak ikastaroa osatzen duten ikasgai berberak emateko daudenak izango dira.

Ikastaroa hiru modalitatetan antolatuta dago: Zientzia eta Teknologia; Gizarte Zientziak eta Osasun Zientziak. Bere egitura honakoa da: hiru irakasgai komun, modalitateko lau eta aukerako irakasgai bat, ondoko eskemaren arabera:

Goi Mailako zikloetan sartzeko proba prestatzeko ikastaroa					
Zientzia eta Teknologia		**Gizarte Zientziak**		**Osasun Zientziak**	
Irakasgai komunak	**Ordu.**	**Irakasgai komunak**	**Ordu.**	**Irakasgai komunak**	**Ordu.**
Hizkuntza eta Literatura	4	Hizkuntza eta Literatura	4	Hizkuntza eta Literatura	4
Geografia eta Historia	4	Geografia eta Historia	4	Geografia eta Historia	4
Atzerriko hizkuntza	4	Atzerriko hizkuntza	4	Atzerriko hizkuntza	4
Modalitatekoa*		**Modalitatekoa**		**Modalitatekoa**	
Matematikak	4	Mat. aplikatua GZ.etara	4	Matematika aplikatua GZ.etara	4
Fisika eta Kimika	4	Ekonomia eta Enpresa	4	Osasun eta laguntzako oinarriak	4
Industriako Teknologia	4	Ad. eta Kudeaketako oinarriak	4	Biologia	4
Marrazketa Teknikoa		Informatikako aplikazioak	4	Fisika eta Kimika	4
Aukerakoak**		**Optativas**		**Optativas**	
Informatika	2	Teknologia eta informatika	2	Teknologia eta informatika	2
Gorputz Hezkuntza	2	Gorputz Hezkuntza	2	Gorputz Hezkuntza	2
		2. Atzerriko Hizkuntza	2	Atzerriko Hizkuntza	2

**Modalitate bakoitzerako, ebazpenak lotuta dauden lanbide-arloak ezartzen ditu.*
*** Modalitate bakoitzean aukerazko irakasgaietako bat ikasi behar da.*

Ikastaroetan onartua izateko eskakizunak ezartzen dira. Horien artean, besteak beste, 2004. urtean zehar 22 urte baino gehiago ez betetzea. Ikasleek 417/1992 FDak ezarritako eskubide eta betebeharrak, eta ikastetxeen barneko araubidean ezarritakoa bete behar dituzte.

Ikastaroa Ikastetxeko Urteko Programazio Orokorraren barruan sartu behar da, ebazpenean adierazita dagoen gutxieneko edukia duela; irakasleek programazio didaktikoak Hezkuntza Sailak adierazitako kurrikulu esperimentalen arabera burutu behar dituzte, eta bertan adierazitako elementuak jasoko dituzte. Programazio horiek ikasleen ezaugarrien, ordutegiaren eta sartzeko proben ezaugarrien arabera egingo dituzte.

Ebaluazioa hezkuntzaren kalitateari buruzko 10/2002 LOan adierazitakoaren antzekoa izango da. Ikastaroa behin bakarrik egin ahal izango dute, baina tasatutako kasuetan errepikatzeko aukera dago.

Sartzeko probak ekainean egingo dituzte. Horietan adierazitako baldintzak betetzen dituztenek eta hala nahi duten sartzeko ikastarokoek parte hartuko dute. Proban bi atal daude: bata orokorra eta bestea espezifikoa. Horren balorazioa, prestatzeko ikastaroa egin dutenei dagokienean, honelaxe egingo da. Atal orokorrean, proban eskuratutako notari 1,5, 2 edo 2,5 puntu gehituko zaizkio, segun eta prestatzeko ikastaroan eskuratutako batezbesteko nota 5 eta 5.9, 6 eta 7 bitartean edo 7 baino gehiago den, hurrenez hurren; betiere ikasleak bi

irakasgai komun, modalitateko hiru eta aukerakoa gainditu baditu. Modalitatearekin lotutako lanbide-arloetako erdi mailako zikloa egin duten prestakuntza-ikastaroko ikasleak atal espezifikoa egitetik salbuetsita egongo dira. Probaren azken nota bi probetan lortutako noten batezbesteko aritmetikoa izango da. Kalifikazioa positiboa izango da azken nota hori bost edo gehiago baldin bada.

FAn prestatzeko ikastaroaren irakasgaien edukien aurrerapena jasota dago.

19.zk
2005

Editor

Nafarroako Eskola Kontseilua
Aldizkari Berri-Emailea

eskolara

MONOGRAFIKOA: IRAKURKETA ETA IDAZKETA.

IRAKURKETA ETA IDAZKETA: OINARRIZKO TRESNAK

Pedro Jimeno



Pedro Jimeno

Oso gaizki idazten dela, oso gaizki irakurtzen dela eta irakurritakoa ere gutxi ulertzen dela dioten adierazpen alarmistak aditzea ohikoa da. Eta adierazpen horiek maila guztietako hezkuntzako profesionalen artean eta profesionalak ez direnen artean ere entzuten ahal dira. "Iragandako edozein garai hobea izan zela" dioen topiko zaharrak, hainbat modutan adierazita eta estilo ezberdinetako nostalgiako elementu eta bestelako adierazpenekin batera, betiko bizitasun berbera du eta, beti bezala, egiarekin antza txikia du.

Gaur egungo herritarrek, oro har, orain del a40 urtetakoek baino gehiago irakurtzen dute, hobeki irakurtzen dute, gehiago eta hobeki idazten dute. Eta gauza bera esan behar dugu Lehen eta Bigarren Mailako egungo ikasleak hirurogei urtetakoekin alderatzen baldin baditugu. Eskolatuta lagun kopuruari eta eskolaratzedenborari, liburu zein egunkarien irakurketa indizeei bakarrik begiratzen badiegu, ondorio biribilak aterako ditugu. Zer dela eta orduan alarma hori? Justifikatuta al dago? Datuei begiratuta ezetz esan ahalko bagenu ere, errealitatea ez da nahi bezalakoa: hamasei urteko espainiar hiritar baten ulermena eta adierazteko ahalmena, eta baita irakurtzeko duen ohitura ere, argi eta garbi hobetu daitezke eta, jakina, eskola-erakundeak hamabi edo hamahiru urtez berarekin burutu duen ahaleginarekin ez dator bat. Hori horrelakoa bada, egoera arretaz, presarik gabe, sakon aztertzea ezinbestekoa da. komunikazio-ahalmen eta irakurketaren zaletasunaren garapen handiagoa edo txikiagoa eragiten duten elementu guztiak aztertu behar ditugu. Neurri handi batean bion menpe dago maila guztietako ikasle guztien eskola-arrakasta, eta pentsatzen dutena esaten dakiten eta jasotzen dituzten mezuekin kritiko jokatzen duten hiritarrak edukitzearen gizarte-arrakasta ere.

Ikasle batek irakurketa eta idazketarekiko duen ahalmena eta jarrera hainbat faktoreren menpe egoten dira: alde batetik, aplikatzen zaizkion eskola-programak, metodologia eta material didaktikoak, biak ala biak didaktika berezien garapenarekin estu-estu lotuta, baita irakasleen gaitasun eta dedikazioarekin ere. Baina, bestaldetik, eskola-esparrutik kanpoko faktoreak ere erabakigarriak dira. Familiaz eta bertan komunikazio idatziari ematen zaion garrantziaz, eta telebistako programen, publizitatearen, bideojokoen, eta abarren mundu konplexu horrek duen eraginaz ere ari gara.

Gordon Wells jaunak eta bere lantaldeak "Bristol Azterlanean" buruturiko ikerketak bezalakoek familia-esparruko komunikazio-elkarrekintza arina, umeei oso txikitatik ipuinak irakurtzea idazmena eta irakurmenerako gurasoen maila soziokulturala bera baino askozaz garrantzitsuagoa dela erakusten dute. Bestaldetik, eta ikus-entzunezko eraginaren ondorioz, irakasleen eginkizuna zailago bilakatu da: gaur egun, ikasleek ikasgeletan duten jarrera orain dela hogeita bost urtekoek zutenaren bestelakoa da: ipurtarinagoak dira, zailago gertatzen zaie kontzentratuta egotea, atseden, hausnarketa, azterketa eskatzen dituzten zereginak burutzeko zailtasun handiagoak izaten dituzte. Eta ez zitekeen bestelakorik gertatu gurea bezalako gizarte batean, Joan Ferrés jaunak "ikuskizunaren gizartea" esaten dio, eta bere ezaugarri nagusiak honako hauek dira: "sentimenak, narratiboa, dinamikoa, emozioak eta sentsazioak sustatzea". Mundu horrekin lehian sartzea, benetan, zaila da.

Hobekuntza esanguratsuak erdiestea, beraz, aldagai horiek guztiak sakon aztertzearen eta ondoren erabaki burutsu eta, ziur aski, ausartak hartzearen emaitza izango da. Erabaki horiek kurrikuluari, material didaktikoei (orain arte editorialen irizpideaz gehiegi fidatu izan gara), irakasleen prestakuntzari, hau didaktikaren ekarpenekin lotuta (momentu honetan anitz eta oso solidoak); bere lan-baldintzei eta arlo guztietako irakasleak irakurketa eta idazketari dagokienez izan beharreko koordinazioari buruzkoak dira. Aurrerantzean lan handia dago, baina baikor izateko baldintza objektibo nahikoak daude. Baina gure klase politikoak izan ohi dituen presak saihestu behar ditugu, azken hori, agian, hezkuntza sistemak eskaintzen duenaren benetako kalitatearekin baino ebaluazioarekin baitago obsesionatuta.